

Rikardo Arregiren izena eta izana gogoan hartzeko ekimenak Andoainen


"Rikardo Arregi irakurtzen" eta "Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak" ekimenak euskal kulturgintzaren erreferentzi bilakatu ziren. 10-12

"Soinuen Begiradak" ikuskizuna

Ikusleek hiru aldiz bete zuten Sarobe antzokia, joan zen larunbatean. Urnietako ondarean oinarrituriko ikuskizunean hitza, doinua eta dantza nagusitu ziren / 6-7



Olagain txistulari bandak urteurreneko emanaldi gogoangarria eskaini zuen Basteron / 8-9



Helburu estrategikoak zehaztuta, abian jarri dute Urnietan datozen 4 urteetarako Legegintzaldi plana / 5



"Min ikusezina", ehundik gora hezitzailek motxiladun haurren alde sinatu duten adierazpena / 2-3



Motxiladun haurrak urruntasun egoera piratzen duten preso politikoen adin txikikoak dira. SARE

Motxiladun haurrak gurean

Dispersio egoera pairatzen duten haurren egoera salatzeke, Andoaingo hainbat hezitzailek elkartasunezko adierazpena argitara eman dute. Horrekin batera, abenduaren 22an haien aldeko ospakizuna egingo dela iragarri dute

Mikel Arberas ANDOAIN

Haur motxiladuna preso dagoen guraso bat ikusteko urruneko kartzeletara joan behar izaten duen haurra da. Zehazki, euskal gatazkari lotutako presoan seme-alabei deitzen zaie; hauek, sakabanaketaren politikaren biktima baitira. 2018ko datuen arabera, ehundik gora ziren guraso bat edo bi espetxean zituzten adingabeak. Kilometro asko egin behar izaten dituzte bisita egitera, Espainiako edo Frantziako espetxeetara. Motxiladun haur-nerabe horieta-

tik 13k aita eta ama kartzelan dituzte, 6k ama eta 85ek aita. Gaur egun bost haur bizi dira euren amekin espetxean: lau haur Picassenten (Valentzian) eta bat Aranjuezen. Egoera horretan, Andoaingo eta Beterri-Buruntzako hainbat haur daude. Urrutira joan gabe, Andoainen bi kasu daude. 'Motxiladun umea' izenaren jatorria duela bi urteko film pedagogiko batean aurkitzen da. Geroztik ekimena indartuz joan da, eta, egun, jendartean zeresan handiko gaia bilakatu da. Abenduaren

22an, adibidez, motxiladunen aldeko elkartasun festa egingo dute Andoaingo Gaztetxean.

Hezitzaileen begirada

Ez ohiko egoera bizi dute motxiladun umeek. Eurei buruz gehiago jakiteko, Andoaingo zenbait hezitzailearen esperientzia jaso nahi izan du Aiurrik.

Orokorrean haur alaiak dira, besteek bezalaxe barre eta negar egiten dute, kideekin jolasean aritzen dira eta parte-hartzaileak dira. Euren modura ulertzen dute bizitzea dagokien egoera:

"Oso txikiak direnean ez dira jabetzen, baina adinean aurrera egiten duten heinean, galderak egiten hasten dira".

Gai konplexua da eta, batzuetan, tabu ere izaten da. Hala ere, azken urteetan motxiladun umeen egoerari buruz informatzeko eta lanketa egiteko saioak handia egin da. Esaterako, Sarek 'Motxiladun haurrak. Hezkuntza inklusiboaren ikuspegitik hezkuntza premien inguruko analisi eta proposamenak' unitate didaktikoa aurkeztu zuen joan zen azaroaren 19an. Zaila da gaia irakaskuntza esparruan bideratu eta lantzea, baina irakasleek argi adierazi dute: "beste gai asko bezalaxe, haurrek euren modura ulertzen dute. Geuk kanpotik egoera drastikotzat eta zailtzat jo dezakegu; baina etxean eta ikastetxean gaia normaltasunez landuz gero, haurrarentzat eta ingurukoentzat aurrerapauso handia izan daiteke. Euren eguneroko bizitza da, horrelakoa da eta egia da". Irakasleek naturaltasunez jokatu behar duten bezala, motxiladun haurren egoera den bezala tratatu behar dela nabarmendu dute.

Motxiladunek bidaia luzeak egiten dituzte asteburuetan, bidaiaren arabera eskola orduak ere galdu izan dituzte eta horrek haur bakoitzarengan eragin nabaria du: "Normalean bisita ondorengo egunak ez dira errazak izaten umeentzat, aita edo ama han utzi dutelako. Batzuetan dispersioa beraiei ezarritako zigor gisa hartzen dute, hots, ulergaitza egiten zaie aita espetxean egotea eta, gainera, haurrak ere milaka kilometro egin behar izatea denbora labur batez ikusteko. Haurrek adierazi izan dute bidaia euren zigor modukoak direla, eta hori guztia kudeatzea zaila da". Bidaiek estres egoera batean jartzen dituzte haurrak, eta, beraz, maiz gogoz kontra egiten dutenaren bizipena edukitzen dute.

Haur motxiladun gehienek ekintza eta zeregin ororen berri eduki nahi dute.

EGUN, 270 EUSKAL PRESO POLITIKO DAUDE. HAIETAKO ASKO ADIN TXIKIKOEN GURASOAK DIRA

Elkartasun festa

Motxiladun haurren egoera gizarteratu eta elkartasuna adierazteko, datorren abenduaren 22an elkartasunezko festa antolatuko dute Andoaingo Gaztetxean. Arratsaldean hasita, Joxemari Carrerek ipuin-kontaketa saioa eskainiko du. Ekitaldiak irauten duen bitartean, erakusketa bat ikusgai izango da. Arratsaldeari amaiera emateko, txokolate jatea antolatu dute.

Aita edo ama bisitatzera kanpora doazenean, guztia planifikatuta edukitzeko ohitura dutelako. Ordea, dispersioa dela medio, askotan gustuko ekimenak eta lagunarteko planak alde batera utzi behar izan dituzte. Agenda kontrolpean eduki nahi izaten dute, aisialdian sor daitezkeen egitasmoetan parte hartzeko eta gurasoak asteburuetan bisitatzera joateko. Bi gauzak egin nahi dituzte: "Askotan zer egingo dugun jakin behar dute, eguneroko ekintzen kontrola bermatu nahi dutelako. Azken finean, beraien agenda gurasoen egoerara antolatuta baitago".

Dispersioaren eragina motxiladun haurrengan

Gaur egun, 270 euskal preso daude, gehienak Espainia eta Frantziako espetxeetan. Era berean, arestian esan bezala, 18 urtetik beherako 104 motxiladun haur-nerabe daude. Bidaia bakoitzean, batez beste, 1.300 kilometro egiten dituzte presoan senideek, lagunak eta familiak. Laburbilduta, presoan %80, 400 kilometro baino gehiagora daude sakabanatuta. Haurren egoera ulertzeko, egiten dituzten bidaia luzeak, egoera emozionala eta gurasoak ikusteko

EHUNKA ETA MILAKA KILOMETRO EGIN BEHAR IZATEN DITUZTE GURASOAK BISITATZEKO

denbora mugatuak kontuan hartu behar dira. Haizea Barandiaran psikoterapeutak garbi hitz egin du haur motxila-dunek pairatu ditzaketan oina-zeei buruz.

Barandiaranek adierazi duenez, "haur eta nerabeen gurasoetako bat, edo biak kartzelan egoteak garapen emozional, kognitibo eta sozialean eragiten du. Gainera dispertsioak egoera hori areagotzen du, gazteen garapeneke eremu guztiak ukituz". Gurasoetako bat edo biak espetxean edukitzea nabarmenki zailtzen du haurren egoera emozional eta soziala. Egoera horri, eurak ikusteko milaka kilometro egitearen zama ere gehitu behar zaio; "gurasoak espetxean izatearen errealitateak eragin zuzena duela ukaezina izanik ere, dispertsioak egoera horiek guztiak gordinagoak bihurtzen ditu dudarik gabe, harremana, kontaktua eta guzti horretarako maiztasuna zailduz".

Esanak esan, oro har Espainiako eta Frantziako kartzelak ezberdinak dira baimenei dagokienaz. Frantziako espetxeetan senideekin egoteko eta seme-alabekin 'jostatzeko' aukera gehiago dago; umeekin eduki daitekeen kontaktua naturalagoa eta gertukoagoa dela esan daiteke. Espainiako espetxeetan, berriz, kontaktua mugatuagoa da eta familiaren normalizazio egoera kolokan jartzen du. "Espainiako kartzelatan egoera gogorragoa da askotan, harre-

mana desnaturalizatua, mugatua eta oso kontrolatua da. Batzuetan bidaia luzearen ostean, bi orduko bisitaldiak edukitzen dituzte soilik", gehitu du.

Txarrenari onena ateratzen diotenak direlako

Motxiladun haurrek egoera zailari, nekagarriari eta gogorrari aurre egiten diote. Irakasleek aski nabarmen adierazi dute haurrak orokorrean alaiak direla, eta pozik bizi direla. "Heldutasun handiko haurrak izan ohi dira. Harrigarria da zenbait egoeratan nolako heldutasunarekin jokatzaren duten. Ardura, kontzientzia maila, eskuzabaltasuna eta elkartzasuna bezalako balioak garatzen dituzte".

Denboraren eta espazioaren hautematea ere oso garrantzitsua da haur eta nerabeentzako. Bidaia asko egiten direnean pertzepzioa galdu eta desitxuratu baitaiteke. Beraz, data bat edukitzea oso garrantzitsua bilakatzen da familiarentzako eta, batez ere, umearentzako; nola-bait esateko, helburu bat jartzen baitio norberari, hots, aita, ama edo biak aske geratuko diren eguna iristea. Haizea Barandiaranek irmo adierazi du, "haurrek jakiten dutenean gurasoetako bat edo biak egun horretan espetxetik irtengo direla, burua beste modu batera antolatzen dute. Kalera irtego diren eguna jakitea oso garrantzitsua da, itxaropena da. Ez jakitea, berriz, oso zaila da helduentzako, baina bereziki umeentzako".

Esan gabe doa, Sarek eta hainbat erakundek adierazi bezala, haur horien egoera asko aldatuko litzatekeela urruntasun politika balio gabe geratuko balitz.



Garazi Etxarri, Olaia Bueno, Ainhoa Rodriguez, Jone Otaegi, Udane Jauregi eta Haizea Barandiaran. AIURRI

"Min ikusezina", adierazpena

Eguna joan eta eguna etorri, haurren bizkarretan edo heldulekutik tiraka, hamaika motxila ikusten ditugu eskolan, nahiz joan-etorrian. Eta maiz, gure ahotik irteten da garai batean guri esaten ziguten hura: motxila behar bezala eraman behar dela, sorbaldako mina saihesteko.

Haur gehienek astelehenetik ostiralerako tartean eramaten dute motxila soinean.

Astearen bosgarren eguna iristen denean, eskolako zama eta motxila etxeko txoko batean uzten dute, gehienetan bi egun irauten duen eskolako parentesi txikian.

Baina badira parentesi hori ez duten haurrak: asteburua komarik gabeko lerro luzea bilakatzen zaienak.

Hezitzaileok, heldu izateko bidean doazen haur eta gazteen bidelagunak gara. Familien gerizpean, gure eskua luzatzen diegu haur eta gazteei, bideak

dakartzan estropezueta ahalik eta min txikiena har dezaten. Berezi arduratzen gaitu haur bakoitzak izan dezakeen zama emozionalak; min ikusezina sortu eta motxila imaginario batean eramaten denak.

Euskal Herrian 130 haur dira, hilerro, ehunka kilometro egin behar dituztenak, asteburua joan eta asteburua etorri, motxila fisikoa eta imaginarioa bizkarrean ditzutela. Motxiladun umeak izenez ezagutzen ditugu: etxetik urrun, preso duten aitari edota amari bisita egiten dioten haurrak dira. Horietatik bi, gainera, andoaindarrak ditugu.

Motxila soinean, bizitzan erreferente diren aitaren edo amaren maitasuna, bisita ordu apur batzuetara murrizten da, familiaren harremanean galerak eta hutsuneak sortuz. Hau gutxi balitz, edozein haurrek behar dituen asteburu libreak, ehunka

kilometro biderkatzen diren bidaietan igaro behar dituzte, gero eta handiagoa den karga emozionala motxila ikusezinean daramatela.

Ez dago munduan halako egoera merezi duen haurrik. Sorbaldako mina nola-hala arintzen delako baina min ikusezinak oinaze are handiagoa sortzen duelako.

Hau guztia dela eta, gure babesa adierazten dugu, eta, min hori arindu dadin haur eta senideen bidelagun izango gara.

Sinatzaileak

Andoaindarrak diren edo Andoainen lan egiten duten 103 hezitzailek adierazpena sinatu dute. Sinatzaileen artean Ondarretako, Leitzarango, La Salleko, Aita Larramendi ikastolako, Galardi haurreskolako eta herritik kanpo lan egiten duten beste hainbat hezitzaile daude.

MOTXILADUN HAURREN ALDEKO OSPAKIZUNA EGINGO DUTE ANDOAINEN, ABENDUAREN 22AN

Andoain BONOÂ

Ordaindu 40€ eta gastatu 50€

SALKINeko dendetan gastatzeko

Abenduaren 2tik 10era, erosi bonoak Salkinen bulegoan. Ordainteko irteerak: 10-05-11-00 / 11-05-10-00.

Erabilgarri urtarilaren 5era arte.

Nortasun agia erakutsia ezinbestekoa da eta 2 bono eskura ditzake bakoitzak 18 urtetik gorakoenentzat.

*Bonoak erabiltzeko, erabiltzailearen izenburuak eta familia erabiltzailearen izena behar dira.


Andoain txartela erabiliz gero, %5eko deskontua

S2 SALKIN

Izentzitate Bertaria

ANDOAINGO UDALA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Azaroa

Udazken honetan, kultur ekimen handien loraldia ezagutzen ari garenean, gogora etorri zait Jose Antonio Rodriguez Ranz “Txiki” Deustuko unibertsitateko errektore-ordearen hausnarketa. 2015ean, Andoain laugarren mendeurreneko ospakizunetan murgilduta zebilela, Aiurrirako elkarrizketan zera adierazi zidan: “Kohesioaren bidean adibide sinplea eta esanguratsua jarriko dut: Herri Antzerkia. Dozenaka andoaindar oholtaza gainean belaunaldi, lanbide eta pentsakera ezberdinekoak..., horiek guztiak egitasmo berean elkarrekin ikusteak kohesioa modu ezin hobean lantzen du. Niretzat hori da bidea. Zatiketa eta bazterketaren arriskua gainditzeko modurik eraginkorrena da, ez daukat zalantzarik”.

Azaroa joan da eta
Andoainen zein Urnietan
tamaina handiko kultur
jarduerak antolatu dira:
'Rikardo Arregi irakurtzen'
ekimena Andoainen eta
'Soinuen Begiradak'
ikuskizuna Urnietan.

Askotariko jendea lanean aritu da, elkar hartuta parte hartuz, duten onena herrikideen aurrean erakutsi nahian.

Hitza eta doinua,
kulturak badu gizartea
bateratzeko dohai hori.

Kulturaren loraldia gertatzen ari den bitartean, bake eta bizikidetzaren hostoak zimelduta ageri zaizkigu. Urnietan datorren astean abiatuko dira jardunaldi berriak, eta egitarauaren aurkezpeneko argazkian sozialistak falta dira. Denbora da bake eta bizikidetzaz mahaitik kanpo geratu zirela, euren erabakiz. Udalerrri mailan tentsioa zegoen politikarien artean, hutsune

horren harira. Talka jeltzaleen eta sozialisten artean sortu zen, eta gaurkoz konpondu gabe darrai. Bakoitzaren bertsioa gordin agertu zen joan zen asteko plenoan. Bideoa Youtuben dago ikusgai. Tonoa igo eta muturtu egin ziren sozialisten eta jeltzaleen bozeramaileak. Egoera bideratu nahian, Bilduko bozeramailea denen parte hartzea beharrezkoa dela aldarrikatzen aritu zen. Horixe egokiena litzatekeela, erantsi zuen alkateak. Behin eztabaida jendaurrean lehertuta, positibojar gaitezen. Egoerak hobera bakarrik egin dezake Urnietan.

Azaroan ere Andoaingo
ordezkari politikoen artean
memoriaren eguneko
adierazpena sinatzeko
adostasuna erabatekoa zela
ikusi genuen. Hori bai,
"palazioan" dauden bitartean.
Udaletxeko atea zeharkatzen
dutenean, adostasun hori
egitarren aurrean hautsi
egiten da.

Alderdi guztiak udaletxetik
kanpo elkartuko dituen
memoriaren eguneko ekitaldi
irekia egiteke dago oraindik.

2018ko abenduan Aritzuz txostenaren aurkezpen ekitaldia egin zuten Basteron. Mugarria izan zen bake eta bizikidetzan, dozenaka lagunek ahotsa eta aurpegia jarri geniolako hainbeste min eman duen gatazka politikoari. Biolentzia ezberdinak pairatu zituztenen ahotsa zen: Nerearena, Xabierrena, Mari Pazena, Mikelena, Imanolena... Hantxe ginen, ikusleen artean, belaunaldi, lanbide eta pentsaera ezberdineko andoaindarrak.

Iristear dira aurtengo jardunaldietako bi ekitaldiak. Ziklo politiko berria abiatu da, eta alor honetan ere denbora gehiago behar izango dela dirudi. Pena piska bat hartu dut, 2017ra edo atzerago itzuli garen sentsazioa dudalako. Iazko abenduko ekitaldia eta gero, urrats berriak emateko

aukerari heldu behar zitzaion. Beharrezkoa da, kohesioan sakondu behar badugu. Gizarte modura aurrera egiteko gure buruari zor diogulako. Gehien sufritu dutenek hitz egiteko eta entzun egiten zaiela sentitzeko premia dutelako. Nerea Amutxastegik, Argituz txosnetaren aurkezpen bideoan, sufrimendu guztiez hitz egin zuen, erreparorik jarri gabe. Eta berak pairatutakoagatik harengana hurbildu eta ea zer moduz dagoen galdetzeko gonbitea luzatu zien iraganean bereziki gatazkaren beste aldean egon ziren herrikideei. Ez dut galdetu ere egin nahi, baina ziurrenik Nerearen eskaera entzun eta hari hurbildu zaion herrikideen kopurua esku bakarrarekin kontatu ahal izango da.

Ausart jokatzten hasi beharko genuke. Beharrezkoa da, kohesioan sakondu behar badugu.



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aiurri eskuragarri:
Etkez etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko
harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta
merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubedia.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbisondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak:
Gabeika Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.es
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitate@aiurri.es
Banatazaileak: Mikel Arregi (Andoain)
Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urnietta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.es | www.aiurri.es
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-107/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zera Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik

Legegintzaldi plana martxan jarri dute

Joan zen asteko plenoan, Urnietako Udalak "2019-2023 Legegintzaldi plana"ri onespina eman zion. Alkatearen ahotan, "datozen lau urteetako jarduera politikoa planifikatzen duen" dokumentua da

Jon Ander Ubeda URNIETA

"Dokumentu honek datozen lau urteetarako markoa ezartzen digu, udaletxearen kudeaketa mailan. Gauza batzuetan jarraikortasunaren aldeko apustua egin dugu, izan ere, lau urtero oso desberdinak diren dokumentuak aurkeztea ez da egokiena, jarraikortasun eta logika bat eman behar zaie proiektuei", erantsi zuen. Mikel Pagola agintean dagoenetik, lan egiteko modu bera ezarri da. Urnietar askori ezaguna zaionez, Udal jarduera Herritargoa, Lurraldea eta Antolakuntza sailetan banatuta dago. Oraingoan helburu estrategikoak zehaztu dituzte, eta ondoren urtez urte helburu horiei erantzuteko ekintza planak garatuko dituzte.

Herritargoa, hauexek nabarmendu daitezke: "Aukera berdintasuna bermatzeko neurriak sustatu", "elkarte dinamikak sustatu" edota "garapen eta sustapen sozioekonomikoa".



EAJ-PNV alde agertu zen, EH Bildu abstentitu egin zen eta PSE-EE aurka agertu zen. UDALA

Antolakuntzan, besteak beste, honakoak: "Herritarren trami-teak erraztu eta arindu", "Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa indartu", "herritarren parte hartzea bultzatu" edota "etika eta gardentasuna eredu izan". Lurraldean, bestalde, honakoak: "Jasangarritasuna

sustatu: birziklapena, ingurumena" edota "landa eremua bultzatu bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko".

Legegintzaldi planaren proposamena EAJ-PNVren aldeko botoekin onartu zen. PSE-EE aurka agertu zen, eta EH Bildu abstentitu egin zen.

Bozeramaileen argudio nagusiak

Herme Gonzalez, PSE-EE

"Sozialistok herri osorako plan bat badugu. Aurreko agintaldietatik hona Urnieta geratuta dago, eta etxebizitza falta izan da gure gazteei eragindako kalterik handiena. Gazteak gure herritik joan egin behar izan dute, gobernuan daudenez ez dietelako herrian bertan etorkizun bat eskaini. Arazo horren ondorioz jaiotze tasa jaitsi egin da, tokiko merkataritza egoera zaillean dago, gure adinekoak zerbitzuen premian dira... Gauzak beste modura egin daitezke, eta noski askoz hobeto. Kontziente gara zein den gure tokia, baina horrek ez digu Urnieta defendatzeko aukera kenduko".

Ainara de Miguel, EH Bildu

"Aurkeztu den egitasmoa oso orokorra da. Gure sentsazioa da konkretiorik nahi ez duen eta ekintza konkreturik adierazi nahi ez duenaren plana dela. Aurkeztutako dokumentu hori bakarrik edukita, edonork baiezkoa emateko plana da. Egun hauetan beste hausnarketa mota bat etorri zaigu. Atzera begira ikusten dugu aginduak bete gabe geratzen direla, esanak ez dira aurrera eramaten, herri eskola 'erortzen' ari da, gazteak herritik joaten ari dira. Promesa eta izenburu potoloen gainetik jorratu gabe geratzen ari zaizkigu feminismoa, berdintasun teknikaria...

Mikel Pagola, EAJ-PNV

"PSE-EEri gogorarazi nahi diogu aurkeztu duguna helburu estrategikoen aurkezpena dela gaurkoa. Ekintza zehatzak urteko ekintza planean agertuko dira. Egia da etxebizitza asko ez direla egin, baina etxebizitzak salgai badaude eta bigarren eskuko etxebizitzak erosteko aukera izan dute. Egun, bigarren eskuko 70-80 etxebizitza salgai daude. Berrien zain egoteko eskubidea dute, eta ahalik eta azkarren egiten saiatuko gara. PSE-EEren proposamen zehatzetan ikusi beharko litzateke gastua nola orekatzen den. EH Bilduri adierazi nahi diogu urtez urteko ekintza planetan zailentzen jartzen duten sinesgarritasuna berreskuratzeko aukera egongo dela".



URNIETAKOUDALA

Izaera sozialeko etxebizitzak

Udalaren jabetzakoak diren hamar etxebizitza daude Etxeberri plazan, eta egun hauetan etxebizitza horiek izaera sozialeko alokairuan esleitu dituztela iragarri dute. Eskuratzeko oinarriak datorren urtearen hasieran argitaratuko dituzte. Izena eman beharra dago Etxebiden, Donostiako Andia kaleko egoitzan edo internet bidez. Datorren abenduaren 31 baino lehen.



URNIETAKOUDALA

Berrasoetatik Errekalde aldera

Zaborra biltzen duen kamioiaren ibilbidea erraztu asmoz, Berrasoetako parkearen ondoan dagoen zabor biltetarako puntua tokiz aldatzea erabaki dute. Astelehenean hasita gauzatu zen aldaketa hori. Edukiontzia sorta hori Errekalde kale aldera mugitu dituzte. Zerbitzu berdina eskainiko da, baina kokapen ezberdinean.





Berrogei lagunetik gorako gizataldeak osatu du "Soinuen Begiradak" ikuskizuna. Hiru saioetan ikuslegoaren txalo zaparrada jaso zuten, emanaldiaren amaieran. AIURRI

Ederra izan da, beste behin ere

Testu, irudi, dantza eta musika ederrez jantzitako "Soinuen Begiradak" ikuskizuna eskaini zuten, Sarobe antzokian. Egape dantza taldeak, Anabas eta Txanbolin taldeekin batera, ikuskizun bikaina antolatzeke gaitasuna badutela erakutsi dute

Xabier Lasa URNIETA

Sarrerak agortzea lortu zuten azaroaren 30ean iragarritako hiru emanaldietarako. Egiazki, kalitate handiko sormen-lanarekin gozatu ahal izan zuten ikusleek; urnietarrek urnietarrentzat egindako harri-bitxi polit eta gozagarria izan zen zinez.

Eguzkiak goizetik ilunabarre bitarte egiten duen ibilbideari jarraituz, Urnietako udalerrian topa daitezkeen hainbat leku fisiko eta elementu esanguratsuen eskutik doa ikuskizuna. Beti ere ikuspuntu sinboliko eta majikoa nabarmenduz. Adarramendi, Eteneta, Sansonari, Ayerdi etxea, Idiazabal kalea eta Zaldundegi etxea, Buruntza... Denek ere badute zertaz mintzatua, historian zehar denak izan baitira urnietarren arbasoek eta Urnietako herriak jasan duten eboluzio historiokoaren lekuko pribilegiatuak.

Argazki zahar zein berriekin, eta dron baten laguntzarekin hartutako irudi biziarekin eboluzio horren nondik norakoa oso garbi geratzen da.

Sormen lan kolektiboa

Pieza ugariz osatuta dago "Soinuen Begiradak" ikuskizuna, eta guztiak ordenan jartzen lan bikaina egin du Mikel Agirregomezkorta zuzendariak. Pieza horiek denek ere ezin zorrotzago betetzen dute beren funtzioa. Jon Unanue da denbora guztian ikuskizuna ikuspegi majiko batez kutsatzen duten testuen egilea. Aner Unanuerenak dira, berriz, pantailan ikusten diren airezko irudi biziak.

"Soinuen Begiradak" ikuskizuna testu eta irudiez gain, doinu gozagarri eta dantzagarriez aberasten da. Musikaren arloa ederki asko bete dute Txanbolin txistularien bandako eta Anabas musika taldeko kideek, abesti

eta pieza polit eta biziak eskainiz.

Aldi berean, nabarmentzekoa ere bada Edu Murumendiarazek egin duen lana, perfekzio handiz jakin izan baitu koreografia doinuetara egokitzen; eta zer esanik ez bere agindutara jarri diren dantzarien interpretazio bikaina.

Urnietak kultur mailako sortzaile asko dituen herria da, eta horiek elkarlanean jartzeko abiltasuna erakutsiz gero, kalitate handiko emaitza ikusgarriak eta gozagarriak lor daitezke. Horixe erakutsi dute, beste behin, 'Soinuen Begiradak' ikuskizuneko bultzatzaileek.

**ELKARLANEAN
KALITATE HANDIKO
IKUSKIZUNAK
MARTXAN
JAR DAITEZKE**

Antolatzaileen balorazioa

Antolaketa taldearekin harremanetan, balorazio oso baikorra egin diote Aiurriri. Hasteko eta behin, egun berean hiru saio egin zituztela azpimarratu beharra dagoela uste dute: "Bi saiorako prest geunden, eta sarreraren eskaera hain handia zela ikusita, hirugarren saioa antolatu behar izan genuen. Esfortzu handia egin zuten denek, bereziki taula gainera igo zirenek. *Soinuen Begiradak* ikusi nahi izan zuenak ikusteko aukera izan zuela esan genezake. Beraz, oso pozik gaude". Denbora tarte txikian lan asko egin behar izan zuten. Hori dela eta, 19:30tako hirugarren eta azken saioa hamabost minutuko atzerapenarekin hasi zen. Beharrezkoa ikusi zuten, musikariek eta dantzariak bereziki arnasa har zezaten. Azaroaren 30ekoa aurreko asteetako prozesu emankorrari amaiera eman zion. Bi egun lehenago, entsegu orokorra egin zuten. Birritan egin zuten muntaia osoa, eta xehetasun teknikoak lotzeko bereziki izan zen garrantzitsua. Ikuskizuna abian jarri zutenean antolatzaileek euren buruari jarritako helburuak bete ote diren galdetuta, erantzuna baiezkotzeko da: "Ikuskizunarekin ikuslegoak tarte atsegina igarotzea nahi genuen, eta lortu dugulakoan gaude. Argazki zaharrek eragin handia izan dute, bereziki iraganeko Urnietak ezagutu zuten adinekoengan. Oso pozik gaude ikuslegoaren aldetik jasotako erantzunarekin. Ikuskizuna aurrera eramateko dagoen lan guztia eta ilusio guztia gradaraino iritsi dela nabaritu dugu".

Sarobe hiru aldiz bete zuten



Artistek ikuslegoaren aldetik interes handia nabaritu zuten. AIURRI



Argazkian, ikuskizunari amaiera eman zion dantza saioa. Segidan, oholtzan agertu ziren parte hartzaile guztiak. AIURRI



Musika, irudi eta argiztapen aldetik maila handiko ikuskizuna izan zen. AIURRI



Egape dantza taldeak ikusgarritasun handiko koreografiak eskaini ohi ditu. AIURRI

Lagun askoren laguntzari esker atera da aurrera



SOINUEN BEGIRADAK IKUSKIZUNA

2019ko azaroaren 30a.
Sarobe Arte Eszenikoen gunea.
16:00 / 18:00 / 19:30.
Saroberen 25. urteurreneko ekitaldien baitan antolatu den ikuskizuna.
Fitxa artistiko-teknikoa
Ideia: Antton Jauregi.
Gidoia: Jon Unanue.
Musika zuzendaritza: Antton Jauregi.
Dantza zuzendaritza eta koeografiak: Edu Muruamendaraz.
Eszena zuzendaritza: Mikel Agirregomezkorta.
Argiztapen eta soina: Pablo Lussarreta.
Artelana: Jon Jauregi.

Musika sorkuntzak: Antton Jauregi, Xabi Ubillos.
Berrasoeta kantuaren hitzak: Jon Garmendia.
Argazkiak: Aitor Regillaga.
Animazioa: Eneko Salaberria.
Dron irudiak: Aner Unanue.
Bideo edizioak: Asier Manso.
Jantziak: Enkarni Cuesta.
Ekoizpena: Egape dantza kultur elkatea.
Dantzariak:
Ainhoa Arruti, Alba Quel, Amets Orbegozo, Ane Etxeberria, Anne Elustondo, Eider Manterola, Garazi Urdangarin, Ioritz Lizeaga, Irati de Torres, Irati Iginitz, Karmele Lekuona, Maddi Ibañez, Maider Artetxe, Nahikari Sanchez, Naia Lussarreta, Saioa Urbistondo, Uxue Sanchez.

Musikariak:
Kristina Solano (Triketixa), Antton Jauregi (Txistua eta Xirula), Fermin Zinkunegi (Akordeioa eta Abeslaria), Xabier Ubillos (Kitarra), Felipe Ugarte (Hang eta txalaparta), Eneko Salaberria (Baxua), Helena Roguska (Bibolina), Jon Jauregi (Tronpeteta eta kitarra), Peio Artetxe (Bateria), Izaskun Etxeberria (Teklatuak), Ana Pozas (Abeslaria), Xabier Leturia (Perkusioak), Paula Sanchez (Bibolina), Nora Lekuona (Bibolina), Sara Gabellanes (Bibolina) eta Juanjo Niebla (grabazioak).
Laguntzaileak:
Urnietako Udala, Oianume, Druck eta Urnietako udal artxiboa.



Igande eguerdikoko emanaldian parte hartu zuten Olagain taldeko partaideak. AIURRI

Urteurrenako emanaldi borobila eta parte hartzailea

Dotorezia eta ikusgarritasun handiko emanaldia izan zen Olagainek joan zen igandean Basteron eskaini zuen kontzertua. Parte hartzailea izan zen, taldearen berrogei urteko ibilbidea ospatzeko baliatu zutena

Xabier Lasa ANDOAIN

Ikusleei ikuskizun gogoangarria eskaintzearekin batera, emanaldiak beste helburu batzuk maisuki bete zituen: Elkartearen ibilbidea gogora ekartzea, sorrerako bultzatzaileak omentzea eta urtetako bidelagunei eskerrak

ematea... Kalitatez eta gozotasunez egindako kultur ekitaldia izan zen. Osagai ezberdinak izan zituen, Bastero lepo jarri zuten ikusleei gozamina eragiteko lain: musika, bertsoak, abestiak, dantza, aitormentzeko hitz hunkigarriak... aparteko hitzorduan

Andoaingo konpartsako lau erraldoiek ere ez zuten hutsik egin.

1979ko aitzindariari omenaldia

Gaurko egunera iritsi den Olagain txistulari taldea Jose Luis Etxeberriak, Joxe Mari Huizik

eta Joxe Goikoetxeak sortu zuten. Eta urte bereko abenduaren 25ean, La Salle eta Aita Larra-mendi Ikastolako zenbait ikasle ondoan zituztela, Andoaingo kaleetan barrena ibili ziren txistua jo eta jo. Hura izan zen jendaurreko lehen emanaldia.

Abenduaren leheneko ekitaldian egun hura ahalbidetu zuten pertsonak gogoan hartu nahi izan zituzten. Eta horretarako, haiek guztietatik txistua jotzen jarraitzen dutenak eta zendu direnen senitartekoak deitu zituzten oholtzara, Olagain elkartearen eta ikuslegoaren esker ona jaso zezaten. Honako hauek jaso zuten oroigarria: Joxe Luis Etxeberria, Xabier Jauregi, Iñaki Egibar, Xabier Esnal, Jose Goikoetxea (semeak jaso zuen), Joxe Mari Huizi (Maria Angeles Belamendia alargunak jaso zuen), Gotzon Huizi eta Felix Martinez de Lecea.

Aldi berean, atzokoa azken kontzertua izan zen Felix Martinez de Lecea atabalararentzat eta Jexux Mari Otamendirentzat, Eurek ere ikuslegoaren txalo zaparrada jaso zuten. Ainhoa Aiertza aurkezleak bi musikari beteranoei zera adierazi zien: "Poza, urduritasuna eta tristura pixka bat sentituko duzue oraintxe, entsegu eta kontzertuak alde batera utziko dituzuela


erabaki eta gero. Ongi merezitako atseden hartuko duzue, eta jakin ezazue taldekietiek zuek egindako lanari jarraipena eman-go diotela".

Ospakizun parte hartzailea

Olagain Elkartearen asmoa 40 urtetako ibilbidean bidelagun izan dituen kulturgile eta kultur elkarrekin batera osatzea izan zen. Denek ezin izan zuten agertu baina guztiak ordezkatzuz, 130 musikari, abeslari eta dantzarik parte hartu zuten: Txanbolin Txistu Elkartea, Alberto Agirre eta Astigarragako Aiztondo Abesbatzak, Soñuak musika eskola, Urki dantza taldea, Klaap dantza eskola, Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsa, Loatzo musika eskola, Metal boskotea, Miren Mujika (teklatura), Javier Gestoso (gitarra), Joxean Pascual, Igor Arroyo eta Garazi Jauregi (abeslariak) eta Ion Beloki eta Unai Ormaetxea (bertsolariak).

Errepertorioa

Honako pieza hauek eskaini zituzten: *Ohorezko kontrapasa, Galo eta Amaio, Ama Begira Zazu, Kontrapas, In Dulce Jubilo, Guantanamera, La Alegria en San Fermín, Sagarra jo! eta Radetzky March.*



Joxema Setien zuzendaria. AIURRI

Argazkiak eta bideoak sarean

Abenduaren leheneko emanaldia gogoan hartzeko aukera dago, aiurri.eus gunean ikusgai dauden bideoen bidez.



Andoaingo Erraldoien agerpena ikusgarria izan zen, Sanferminei eskainitako kantuan. AIURRI



Jexux Mari Otamendik eta Felix Martinez de Lezeak erretiroa hartu dute. AIURRI



Urki dantza taldeko Asier Garmendia eta Ainhoa Mujika ezpata-dantzariak. AIURRI



Ion Beloki eta Unai Ormaetxea. AIURRI



Dantza garaikidea Klaap dantza taldeko gaztetxoek eskutik iritsi zen. AIURRI

1979ko abenduaren 25ean lehen kalejira eskaini zuen txistulari taldeari omenaldia

40 urte bete dira lehen saioa egin zutenetik. Basteroko emanaldia efemeride hura gogoan hartu eta bidegileak omentzeko baliatu zuten. Ezker-eskuin hauexek izan ziren orduko hartan kalejiran irten ziren partaideak: Joxe Luis Etxeberria, Xabier Jauregi, Iñaki Egibar, Xabier Esnal, Jose Goikoetxea (semeak jaso zuen oroigarria), Joxe Mari Huizi (Maria Angeles Belamendia alargunak jaso zuen oroigarria), Gotzon Huizi eta Felix Martinez de Lecea.

Igandekoa, bide batez, azken kontzertua izan zen Felix Martinez de Lecearentzat eta Jexux Mari Otamendirentzat.



Omenduek oroigarri bana jaso zuten igandeko emanaldian. AIURRI



Begoña, Joseba eta Mikel Arregi anaiek hasiera eman zioten 'Rikardo Arregi irakurtzen' ekimenari. AIURRI

Rikardo Arregiren ondarea hilezkorra da

50 urte bete dira zorigaitzoko istripuan heriotza aurkitu zuenetik, baina haren eragina euskal kulturgintza garaikidean ezinbestekoa da. Aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien aurretik, egun osoko irakurtaldi publiko antolatu zuen Andoaingo Udalak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskararen alfabetatzean ezinbestekoa izan zen Rikardo Arregiren ekarpena. Baina haren itzala luzea da: kazetaritzan, liburugintzan, pentsamenduan... andoaindarrak arrasto sakona utzi zuen, harik eta 27 urte zituela hil zen arte.

Haren izena ezaguna bada ere, 'Rikardo Arregi irakurtzen' ekimeneko sustatzaileek izanari heldu nahi izan zioten. Eta hainbat idatzi eta artikulua jendaurrean irakurri ziren, dozenaka lagun eskutik. Guztira 338 herritarrek parte hartu zuten, goizetik iluntzera luzatu zen ekimenean. Gehiengo zabal andoaindarrak bazen ere, Euskal Herri osotik etorritako euskaltzaleek bat egin zuten ekimenarekin. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzako, Nafarroako gobernuak, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundietako ordezkariak, idazleak, editoreak, euskaltzainak, kazetariak, unibertsitateetako ordezkariak,

euskaltegiak ordezkaritza nagusiak, eta abar. Udalak eskertza oharrean ondo adierazi zutenek, "bistan geratu zen Rikardo Arregi pertsona estimatua, maitatua eta gogoratua duela Andoaingo herriak". Ez zen erraza izan ekimena bere osotasunean antolatzea, eta baliolan jarri behar da antolatzaileek egindako lan eskerga. Hots, Udalak, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak eta Andoaingo AEK euskaltegiak.

Andoaindarrak ez ezik, kanpotik ere jarraitu ahal izan zen. Internet bidez zuzenean jarraitzeko aukera eskaini baitzuen Andoaingo Udalak. Seinalearen lotura zuzena Aiurri.eus-en estekatu zen. Aiurrik, gainera, jarraipen zehatza egin zuen egitasmoaren argazki-bildumak eta bideoak zabalduz. Eitb taldeak, bestalde, jarraipen berezia egin zuen. Euskadi irratiko "Faktoria" saioa, Manu Etxezortuk zuzentzen duena, Baste-rotik bertatik eskaini zen.

Andoaingo Udalaren eskertza

Balorazioa egin zuen biharamunean, esker ona adierazteko: "Andoaingo Udalak pozik dago. Izan ere, ekimen horri esker, gaur atzo baino ezagunagoa eta atzo baino herritar gehiagorentzako ezagunagoa baita Rikardo Arregi egindako ekarpena. Eta hori zen helburu nagusia. Andoaingo Udalak bere esker ona eman nahi die parte hartu zuten herritar guztei, irakurle izan ziren 338 herritarrei, antolaketan parte hartu zuten dozenaka boluntarioei, eta entzule gisa parte hartu zuten ehunka herritarrei. Eskerrik asko guztxi".



Maider Lainez, alkatea. AIURRI



Bingen Zupiria, Sailburu-ordea. AIURRI




Ekiñe Otaño. AIURRI



Jose Antonio Rodriguez Ranz, "Txiki". AIURRI




Esti Mujika. AIURRI




Jose Luis Verdasco. AIURRI



Joxin Azkue. AIURRI




Garbiñe Egibar. AIURRI



Ramon Saizarbitoria. AIURRI



Aitor Mendiluze. AIURRI



Edurne Ustaritz. AIURRI



Iñaki Arregi. AIURRI

Aitor Mendiluzeren bertsoak

Lehen euskara irakasle haiei egindako omenaldian bi bertso abestu zituen:

Rikardok izan zuen asmoa, indarra eta antsia. Ta zuen lanak lotu zituen ahozko ta idatzia, kulturak egin gaitu pertsona, datu ezin ahanztzia. Baina pertsona izan daiteke biluzi edo jantzia, bien arteko aldean dago pauso haien garrantzia.

Garai zaileko lan zailagoa miresmena sortzen badit. Euskaldun gisan neu ere zordun natzaizuela zin dagit. Hasiera hura orri zuri bat izango zela badakit. Beraz milesker lehendabiziko hitzak idazteagatik, historia bat sortzen baitoa lehen esaldi hartatik.



Rikardo Arregi irakurtzen ekimenaren amaieran egin zuten omenaldi ekitaldia. AIURRI

Lehen euskara irakasleei omenaldia

Patxi Baztarrika euskara teknikariak irakurri zituen merezimenduak:

"Herritar batzuk omendu nahi ditugu, 60ko hamarkadan Rikardok ireki zuen bidean barrena egin zuten lan bikainagatik.

Gaur egun ohitu gara ikusten gero eta euskaldun gehiago gure artean; ohitu gara ikusten euskarazko irakaskuntza; ohitu gara ikusten urtero 30.000 lagun baino gehiago euskaltegietan euskara ikasten; ohitu gara ikusten urtero ehunka liburu kaleratzen direla euskaraz; ohitu gara ikusten edozertaz idazten dela euskaraz; ohitu gara ikusten euskal idazle andana batek goi mailako literatura egiten duela euskaraz; ohitu gara ikusten euskarazko hedabideak, eta hedabideetan euskara; ohitu gara ikusten inoiz euskarak bere mendetako historian izan duen baino askoz ere alfabetatu gehiago dituela, gaur egun euskaldun gehienek badakitela euskaraz irakurtzen eta idazten. Finean, ohitu gara ikusten, gure arazo, muga, zailtasun eta estuasun ugarien artean bada ere, aurrera egin duela eta doala euskara.

Baina gauzak ez dira beti horrela izan. Ezta gutxiagorik ere. Gaur garena ez da zerutik eroria. Duela minutu gutxi irakurri dituzte

hemen Rikardok 1966an Euskaltzaindiari entregatzeko idatzitako hitz hauek: "Euskaraz dakiten gehienek ez dakite ez euskaraz irakurtzen ez euskaraz idazten. Herri batek indartsu bizi nahi baldin badu kulturaren beharra du (...) Horretarako beharrezkoa da Euskal Herria alfabetizatzea. (...) Alfabetizazio kanpaina batean pentsatu dugu".

Esan eta egin! Halakoxea baitzen Rikardo Arregi. Estratega zen, helburuak eta bidea markatu eta, berehala, ekintzari ekiten ziona. "Euskaldunak euskaraz idatzi, irakurri, hitz egin" leloa hartu eta lehenengo euskal alfabetatze kanpaina abiarazi zuen. Baita Andoainen bertan ere.

Horretarako, besteak beste, irakasleak behar ziren. Beren lanorduetatik kanpora, askotan lanegun luze eta neketsuen ondoren, gau eskolara joan eta euskara irakasteko prest zeuden gizon-emakumeak behar ziren. Gero irakasteko, aurrena beren burua hartarako prestatzeko gertu zeudenak behar ziren. Eta Andoainen ere sortu ziren halakoak: Andoainen ere sortu baitziren alfabetatze kanpainarako irakasleak, irakasle taldeak.

Guk, gaur hemen, "Rikardo Arregi Irakurtzen" saioaren amaieran, apalki bada ere, aitortu eta goraipatu egin nahi ditugu, 60ko hamarkadaren azken

urteetan, garai zail haietan, dirulaguntzarik ez zegoen urte haietan, euskaraz bere burua prestatu eta euskaldunak alfabetatzeari ekin zioten Andoango gazte haiek. Egin zuten lana aitortu nahi dugu, egin zutena garrantzitsua izan baita gaur gauden tokian egon gaitezen. Beren lana aitortu, goraipatu eta beraiek omendu nahi ditugu.

Guk hamar lagun aurkitu ditugu; horietako batzuk Euskaltzaindiaren urte haietako paperetan ere azaltzen dira euskara irakasle gisa. Agian, gehiago ere izango dira. Izan bedi aitormen eta omenalditxo hau denentzat, 60ko hamarkadaren azken urteetan euskaldunak alfabetatzeko klaseak emateari ekin zioten Andoango gazte haienentzat. Gaur hemen ditugu gurekin, zortzi: Marian Arin, Iñake Beraza, Jexux Mari Eizmendi, Arantxa Irulegi, Arantxa Lizarribar, Maria Angeles Mitxelena eta Jose Mari Uranga irakasle izan zirenak, eta irakasle izan zen -baina duela urte batzuk zendu zen- Angel Ansa irakaslearen anaia Mikel. Lokalizatu ditugun beste biak dira Marikarmen Aizpurua eta Belen Mendikute, baina haiek ez dute hona etortzerik izan.

Zuentzat guztiontzat gure esker ona, gure miresmena eta gure omena. Bihotzez".



andoaINDARRA
euskaraz



Aurtengo saridunak eta finalistak, epaimahaikide eta agintariekin batera, ekitaldiaren amaieran atera zuten taldeko argazkian. Sariak jarraitzeko Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoa bete egin zen. AIURRI

Bikaintasunari saria

Joan zen ostegunean banatu zituzten Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak, euskarazko kazetaritzan ezinbesteko erreferentzia bilakatu dena. Kanaldude, Ttap eta Iñaki Elorza "Txapas" kazetaria izan ziren ekitaldiko protagonista nagusiak

Xabier Lasa AIURRI

2019an euskaraz egiten den kazetaritza saritzeko lehiaketa garrantzitsua antolatzen da Andoinen, eta egun horretan Euskal Herri osoko kazetariak saridunak nortzuk izan diren jakiteko zain izaten dira. Aurtengoak berrikuntza nagusi zekarren, izan ere, lehenbiziko aldiz finalisten berri eman baitzen. Haien artean nor izango zen saridura jakitea besterik ez zen falta.

Ekitaldia, ordea, ezaguna zen sari batekin abiatu zen. Epaimahaiak bere eskura baitu ohorezko aipamenak izendatzeko aukera. Eta aurtengoan Euskadi irratian erretiroa hartu duen Iñaki Elorza "Txapas" esataria-ri ematea erabaki zuen. Bertan zegoen saritua, eta ikusleen txalo zaparrada jaso zuen. Antolaketak bideo ederra prestatu

zuen, Xabier Euskitze, Joxe Angel Iribar edota Joseba Ezkurdiaren agurreko mezuekin. Omenduak poza agertu zuen, eta esker oneko hitzalditxoan hasierako garaia gogoan hartu zituen.




Elorzak ohorezko saria jaso zuen. AIURRI

Pozet zorutzen zegoena, sine-tsi ezinik ia, Kanaldudeko Pantxika Maitia kazetaria zen. Ezusteko galanta hartu zuela aitortu zuen. Epaimahaiak, besteak beste, zera nabarmendu zuen: "Mendialdeko bailara bateko bizi taupadatik jaiota, dinamismo handiko internet bidezko telebista da egun". Maitiak Kanalduden "lurraldea egunerokoan bizi arazten eta bizi mantentzen edo edertzen saiatzen direnei" hitza eman diela adierazi zuen.

Komunikazio sarian Ttap hedabide digitala saritu zuten, "euskarazko kazetaritzari esparru eta aukera berriak irekitzen dizkion proiektua" dela nabarmenduta. Belastegi zuzendariak euskarazko komunikabideak balioan jarri zituen: "Berrikuntzan buru belarri sartuta gaude, denok ere".

Sari nagusia Kanalduderi eta Ttapi



Pantxika Maitia kazetaria, Kanaldudeko kidea. AIURRI

Kazetaritza saria Nafarroa Beheko tokiko telebista da Kanaldude, eta programazioko "Hurbiletik" saioa saritzea erabaki zuen epaimahaiak.



Monika Belastegi, Ttapeko zuzendaria. AIURRI

Komunikazio saria Ttap hedabide digitala 2019an sendotu da. Astero-astero app bidez deskargatzen den hedabidea da, zeinean edukien kontsumorako teknologi berrien erabilera giltzarri da.

KARTELDEGIA

FUTBOLA	
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Euskalduna-Zarautz	0-1
SAILKAPENA	
1 Eibar Urko	28 puntu
17 Euskalduna	10 puntu
NESKAK, 0. ERREGIONALA	
Touring-Urnieta	2-1
ASTEBURUKO PARTIDA	
19:30 Urnieta-Zarautz / Ostg, 5	
ERREGIONAL PREFERENTE	
Urnieta-Gure Txokoa	1-2
SAILKAPENA	
1 Vasconia	27 puntu
14 Urnieta	8 puntu
ERREGIONAL 1. MAILA	
Ordizi-Euskalduna	4-1
SAILKAPENA	
1 Ordizi	20 puntu
7 Euskalduna	14 puntu
PREFERENTE NESKAK	
Euskalduna-Irauli Bosteko	11-0
SAILKAPENA	
1 Euskalduna	25 puntu
2 Añorga	25 puntu
JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
Trintxerpe-Euskalduna	0-2
SAILKAPENA	
1 Ekintza	27 puntu
2 Euskalduna	24 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
12:00 Euskalduna-Vasconia / Ost, 6	
JUBENILEN LEHEN MAILA	
Segura-Urnieta	2-5
Euskalduna-Billabona	2-1
SAILKAPENA	
1 Danena	31 puntu
3 Urnieta	23 puntu
6 Euskalduna	14 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00 Urnieta- Euskalduna / Lar, 7	
KADETE, 7. MULTZOA	
Urnieta-Sporting de Herrera	2-1
ASTEBURUKO PARTIDA	
10:00 Euskalduna-Billabona / Ost, 6	
KADETE, 8. MULTZOA	
Usurbil-Urnieta	3-4
Euskalduna-Antigua Luberrri	1-2
KADETE NESKAK	
Martutene-Euskalduna	0-0
ESKUBALOIA	
EUSKADI, SENIOR MUTILAK	
Urnieta-Loyola	27-28
SAILKAPENA	
1 Basauri	21 puntu
11 Urnieta	6 puntu

GIPUZKOA, SENIOR EMAKUMEAK	
Urnieta-Txingudi	40-18
SAILKAPENA	
1 Egia	14 puntu
2 Urnieta	14 puntu
GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK	
Saieko-Leizaran	36-35
SAILKAPENA	
1 Saieko	16 puntu
5 Leizaran	10 puntu
GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK	
Ordizia-Leizaran	30-41
GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK	
Urnieta-Ereintza	38-17
Aloña Mendi-Leizaran	20-32
SAILKAPENA (1. TALDEA)	
1 Urnieta	14 puntu
2 Eibar	14 puntu
SAILKAPENA (2. TALDEA)	
1 Pulpo	14 puntu
2 Leizaran	14 puntu
GIPUZKOA, KADETE MUTILAK	
Leizaran Horia-Donibane	18-23
Leizaran-Eibar	18-35
Ereintza-Urnieta	21-27
SAILKAPENA (2. FASEA)	
2 Urnieta	2 puntu
6 Leizaran	2 puntu
SAILKAPENA (-B-)	
1 Irun	14 puntu
10 Leizaran Horia	0 puntu
GIPUZKOA, KADETE NESKAK	
Ormaiztegi-Leizaran Horia	8-22
Ereintza-Urnieta I.M	12-22
Ordizia-Leizaran	8-31

ARETO FUTBOLA	
GIPUZKOA KO KOPA	
Mondrate-Euskalduna	5-4
LIGA, 1. JARDUNALDIA	
Euskalduna-Xuga Gure Txokoa	5-1
SAILKAPENA	
1 Oiartzun	23 puntu
5 Euskalduna	17 puntu
SASKIBALOIA	
SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA	
Zurrit-Eibar	45-48
SAILKAPENA	
1 Astigarraga	10 puntu
8 Zurrit S.K.	7 puntu
JUNIOR GIZONEZKOAK	
Ganbara-Grupo EME Oiarso	27-56
SAILKAPENA	
1 Igaratza	10 puntu
8 Ganbara	5 puntu
KADETE GIZONEZKOAK	
Ganbara-Aldapeta	39-54
SAILKAPENA	
1 Antigua Luberrri -A-	12 puntu
10 Ganbara	5 puntu

“Los Angelesen dantza egitea ametsa da guretzat”

DANTZA GARAIDEA June Pascualek eta Oihana Condek Kalifornian dantzatuko dute abuztuan, Bartzelonan egindako lehiaketan bigarren sailkatu ostean. Eider Rodriguez, Ananda Berasarte eta Jhon Enciso dantza irakasleen laguntzaz gailurra ukitu nahi dute

Mikel Arberas ANDOAIN
Zer da zeuentzat dantza?
June Pascual: Gauza asko izan daitezke. Dantzari gehienentzat adierazteko modua dela uste dut, mugimenduekin hitz egiteko modua da. Nahi dena adierazteko jarduera da; haserre nagoenean dantza egiten dut, eta pozik nagoenean ere dantza-tzen jarraitzen dut. Beste leku batera ihes egiteko bitartekoa da.
Oihana Conde: Adierazteko era bat da, musikarekin konektatzeko balio duen tresna da. Abes-tiekin sentitzen diren gauzak dantza bitartez helarazi daitezke. Aske sentitzeko modu bat ere badela uste dut.
Zein mailatan dantzatzen duzue?
J.P: Junior eta senior mailetan dantzatzen dut, BMB taldean.
O.C: Nik Bamboo taldean dantzatzen dut, helduen mailan. Hau da, 18 urtetik gorakoen mailan.
Nolakoa izan zen Bartzelonan dantzatzeko egin zenuten bidea?
J.P: Bi hilabeteetan koreografia bat prestatzen aritu ginen, baina ez ginen irabazteko asmoz joan. Dena dela, gure taldean zerbait ikusi zutela pentsatzen dut, guztiok izugarritzko ezustekoa hartu genuelako. Oso pozik gaude lortutako emaitzarekin.



Protagonistak Bartzelonan saritu zituzten dantzariekin batera. AIURRI

Bigarren postua lortu genuen, 84 punturekin.
O.C: Esan zigutenean harritu egin ginen. Pertsonalki, aurre-rapauso handia da. Gainera, lehiaketan talde askok hartzen dute parte, eta soilik 80 puntutik gora lortutakoak joan daitezke Amerikako Estatu Batuetako Los Angelesen antolatzen den lehiaketa horretara.
Noiz da Los Angelesen parte hartuko duzuen mundu mailako lehiaketa?
J.P: Udan, abuztuan. Baina oraindik ez dakigu txapelketaren egun zehatza.

O.C: Lehiaketa abuztuan da, eta bidaiaren kostua handia izango denez, hurrengo hilabeteetan aurrezteari eta dirua biltzeari ekin behar diogu.
Zuek zaudeten lekura ailegatzeko zer egin behar da?
J.P: Entrenamendu asko egin behar dira, oinarria eta teknika ona lortzeko. Etorkizunean dantzaria izan nahi baduzu, ahale-gintzea ezinbestekoa da.
O.C: Gaitasun handiko dantzariak existitzen dira, baina horiek ere entrenamendu asko egiten dituzte. Nire kasuan, 11 urte daramatzat dantza egiten.

Kiroldegitik modulueta

SPINNING Urnietako Berrasotako aparkalekuan ipintzen aritu diren modulueta gimnasioa eta spinning zerbitzuak eskainiko dituzte. Kiroldegi berria eraikitzen den bitartean, zerbitzuei eusteko soluzioa horixe izan da. Zerbitzu gehiago eskaintzeko modulu gehiago jarriko dituzte.



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 5

DURANGO Azoka

Disko eta liburu azokaren edizio berria, euskal kulturgintzarentzat erreferentziatzeko gunea. Landako gunea, Ahotsenea, Plateruena..., zuzeneko emanaldi ugari.
Abenduaren 5etik 8ra. Landako.

ANDOAIN Trukegunea

Ekogunearekin eta beste hainbat udalerriekin elkarlanean, jostailuak trukatzeko aukera dago.
Allurralde, Arrate.

"Sarobek 25 urte". Atrezkoa, jantziak, kartelak, ikus-entzunezkoak... erakusketa dotorea prestatu dute.
Abenduaren 15era arte. Sarobe.

ANDOAIN Erakusketa

"Esencia eta Existence".
Abenduaren 20ra arte. Bastero.

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberneroren saioa.
17:30, Ludoteka. Doan.

LARUNBATA 7

ANDOAIN Ate irekiera

Galardi haurreskolan izena emateko azken eguna.
Galardi.

ANDOAIN 1969koen bazkaria

1969an jaiotako herriideek bazkaria egingo dute, estraineko aldi. Gaztañaga sagardotegian izango da, hurrengo abenduaren 14an. Menua 50 eurokoa da, eta izena eman nahi duenak datorren abenduaren 7a baino lehen eman behar du izena. Telefonoz deituz edo whatsapp bidez izena eman daiteke. Aurtengoa berezia izango da, denek ere urtean zehar 50 urte bete edo beteko dituztelako.
Izen-ematea: 686 927 597 (Xole).

ASTEARTEA 10

ANDOAIN Kanpaina

'Andoingo Bonoa', Salkineko dendetan. 40 euro ordaindu, 50 gastatu. Abenduaren 10era arte.
Ondarreta kalea, 6.



Sorabilla auzoa, Andoaingo argazki zaharren liburuan. LARRAMENDIBAZKUNA

ANDOAIN Leyçaur aldizkariaren 15. zenbakiaren aurkezpena

Andoaingo historia aztergai duen liburua da, Udal Artxiboak bi urtez behin argitaratzen duena. Oraingoa 15. zenbakia da eta hauexek dira bera baitan agertzen diren atalak: "Sorabillako historia" (Estibaliz Gonzalez Dios), "Komunitatea, gizarte-harremanak eta mentalitateak Andoainen berpizkundearen garaian" (Iosu Etxezarraga Ortuondo), "Industria paisaia lineal baten adibidea: Ama Kandida etorbidea" (Maria Senderos Laka). Eranskin modura Andoaingo argazkigintza txertatu dute, eta liburuarekin batera DVD bat banatuko dute Moises San Jose eta Truchuelo anaiei erakusketen argazki-bildumekin.
Abenduak 10, asteartea. 18:30, Basteroko ekitaldi aretoa.

URNIETA Dokumentala

Bake eta bizikidetzat jardunaldiak. "In dialogue" dokumentalak Irlandako gatazka armatuari eusten dio. Informazio gehiago, 15. orrialdean.
19:00, Lekaio.

OSTEGUNA 12

URNIETA Solasaldia

Bake eta bizikidetzat jardunaldiak. "Gazteak memoria eta transmisioa", Iker Usonen eta Leire Ostizaren eskutik. Informazio gehiago, 15. orrialdean.
19:00, Lekaio.

OSTIRALA 13

URNIETA Dantza

"5 days to dance" egitasmoaren baitan, dantza saio komunitarioa. Saroberen 25. urteurrenoko ekitaldia.
18:30, Sarobe.

ANDOAIN Antzerkia

"Argiaren Hautsa", Vaiven Teatroa.
21:30, Sarobe. 12 euro

LARUNBATA 14

ANDOAIN 1969koen bazkaria

1969an jaiotakon bazkaria.
Gaztañaga sagardotegia.

URNIETA Musika

Tenpera eta Ro musika taldeak.
22:00, Sarobe. Doan.

IGANDEA 15

URNIETA Erakusketa

Saroberen 25. urteurrena: Argazkiak, atrezkoa, jantziak, irudiak...
Azken eguna, Sarobe.

ANDOAIN Haur antzerkia


"Kaskarot", Atx konpainiaren eskutik.
17:00, Bastero. 4 euro.

OSTEGUNA 19

ANDOAIN Kontzertua

"Xomorroen gabonak".
18:00, Bastero

ZINEMA



ANDOAIN

Familia Adams

Aben. 6-8, 17:00.

Legado en los huesos

Ab. 6 eta 8: 19:30.
Ab. 7 eta 9: 19:30, 22:00.

URNIETA

LEKAIO


"In Dialogue"

Aben. 10, 19:00.


LEKAIO

"La trinchera..."

Aben. 15, 18:00.



SINOPSIS



Legado en los huesos

Zuzendaria: Fernando Gonzalez Molina. **Gidoia:** Luiso Berdejo. **Aktoreak:** Marta Etura, Leonardo Sbaraglia, Elvira Minguez, Imanol Arias. **Herrialdea:** Espainia (2019). **Ekoizpena:** Espainia-Alemania. **Generoa:** Thrillerra. **Iraupena:** 119 min.

Amaia Salazar, eleberritik pantailara

Dolores Redondok Baztan aldean sortu zuen eleberriarekin arrakasta handia lortu zuen. Liburuguntzatik harago errepikatu nahi du arrakasta hori, oraingoa Amaia Salazarren ibilerak

pantaila handira eramanez. Elizondo eta inguruetan kokatzen da trama nagusia. Haurdun, eta iragan zaila atzean duela, inspektoreak bailara beldurtuta duen kasuari aurre egingo dio.

Salkinen bono kanpaina


Andoaingo Salkin elkarteko merkatalguneetan erosketak areagotzeko "Ordaindu 40 euro, gastatu 50 euro" kanpaina abiatu dute. Abenduaren 10era bitarte Salkinen aukeraz baliatu ahal izango da eroslea. Zer egin eskaintza hori eskuratzeko? Lehenik eta behin, Ondarreta kalean dagoen egoitzara hurbildu behar da erosketa txartela eskuratzera. Ordutegia honakoa da: Goizez, 09:00tik 11:00tara. Arratsalde, 17:00tik 19:00ra. Pertsona bakoitzak bina txartel eskuratu ahal izango ditu, ez gehiago. Zerbitzuak bonoak agortu arte iraungo du. Txartela eskuratzen duenak erosketa gauzatzeko epea 2020ko urtarilaren 6ra bitarte izango du.

Eguberrietako saskia


Ez da Salkinetik abenduan zehar merkataritza sustatzeko egingo duten kanpaina bakarra izango. Abenduaren 9tik 31ra bitarte, Andoainen erosketak egiten dituztenen artean saski bat zozketatuko dute.



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Brosa anaiak
Zorionak Asier (10), Iker (13) eta Unai (18) Brosa! Muxu handi bana Enekoren eta etxeko guztion partetik!!!



ANDOAIN
Enara
Hilaren 1ean Enarak 8 urte bete zituen. Bizkotxo goxoak egin genituen! Etxekoak.



ANDOAIN
Ama, amona
Eskerrik asko beti gu zaintzeagatik. Jarraitu beti bezain pozik. Maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

diseinua@aiurri.eus

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoinera.
Whatsapp bidez:
619 163 537.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 7 eta igandea 8
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 59 26 59 Andoin.

URNIETA

Larunbata 7 eta igandea 8
ETXEBARRIA: Andre kalea, 48.
943 551 793 Hernani.

GAUEZ

ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola.
943 336 022 Hernani.

Andoaingo Udal egutegiko irabazleak

Aurtengo deialdian arkitekturari lotutako argazkiak aurkeztu behar ziren eta dagoeneko Udal egutegia zein argazkiekin osatuko den erabaki dute. Herritarrek 2020ko egutegia Ataria zerbitzuan eskuratu ahal izango dute, datorren abenduaren 16tik aurrera

Erredakzioa ANDOAIN

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 3an izan zen, Aiurri astekaria inprenta bidean zela. Instalakuntza bikainak dituen Udal artxibo berrian egin zuten ekitaldia. Epaimahaia, aurtengoan, honako kideek osatu dute: Txitxu Ruiz, lehendakari moduan, eta Teresa Santana zinegotziak, Itxaso Mendiluze eta Eduardo Ulanga argazkigintzan adituak, Karmele Otaegi Udal artxibaria eta Maider Lainez alkatea.

Udal agintariek datorren urterako lehiaketaren gaia ezagutzera eman zuten: Andoaingo koloreak.

Egutegiak herritarren eskura

Udal egutegiak abenduaren 16tik aurrera banatuko dituzte Ataria arreta zerbitzuan. Urtero bezala, pertsonako bi ale banatuko dira gehienez. Azken urteetan arrakasta handia izan du egutegiak, azkar batean agortu baita.

ABENDUAREN 16TIK AURRERA EGUTEGIA HERRITARREN ESKURA EGONGO DA, ATARIA ZERBITZUAN



Saritutako argazkien collage-a, Udal egutegiko portadan. AIURRI

2020. urteko egutegiko argazkilariak

Hauexek dira aurtengo irabazleak, hilabeteka antolatuta. Haietako batzuk iaz ere irabazleen artean aurki zitezkeen:

- Urtarrila: Javier Davila Muñoz, "Kolore eta lerroekin jolasean".
- Otsaila: Jose Angel Amuchastegui Esnaola, "Bastero".
- Martxoa: Xabier Huitzi Belamendia, "Eraisketa".
- Apirila: Alain Patino Dominguez, "Presa Olaberri".
- Maiatza: Margarita Oyarzun Yurrita, "Laborde".
- Ekaina: Itziar Gutierrez Fernandez, "Argi sarrerak".
- Uztaila: Jose Angel Amuchastegi Esnaola, "La casa roja".
- Abuztua: Javier Davila Muñoz, "Izarretarantz atea".
- Iraila: Xabier Alkorta Begiristain, "Bastero".
- Urria: Carlos Sanchez Patino, "Movimiento en pausa".
- Azaroa: Aitor Alkain Goikoetxea, "Apaizaren begietan".
- Abendua: Gema Conde Urruzola, "Negu txuriak".



"In dialogue" dokumentalarekin abiatuko dira jardunaldiak. FIARE

Bizikidetza, Memoria eta Giza Eskubideen jardunaldiak

Urnietako Udalak edizio berria antolatu du, datorren astean zehar burutuko dena

"IN DIALOGUE", DOKUMENTALA Abenduak 10, asteartea. 19:00, Lekaio.

Lekua: Lekaio kultur etxea
Mahai beraren inguruan bildu dira IRA-ko eta talde paramilitar unionistetako kide ohiak, soldadu britainiar ohi bat eta polizia ohi bat. Elkarrekin, elkarriketa-ariketa batean murgiltzen dira.

Ondoren, solasaldia Paul Rio-sekin.

GAZTEDIA, MEMORIA ETA TRANSMISIOA, MAHAI-INGURUA Abenduak 12, osteguna. 19:00, Lekaio.

Zer dakite gure gazteek? Zer ez dakite? Zer kontatu diegu? Zer jakin nahi dute? Zergatik da horren garrantzitsua transmisioa? Nola landu behar da transmisioa? Noren ardura da transmisioa?

Hizlariak: Iker Uson eta Leire Ostiza.

FILM LABURRAK, GIZA ESKUBIDEAK Abenduak 10, 11 eta 12.

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian azken urteetan ikusi izan diren bost film labur. DBH-ko 4. mailako, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleei zuzendutako emanaldiak. Besteak beste, honako gai konplexuak jorratzen dituzte: identitatea, migrazioa, politika, emakumezkoen sexu-organoen erazketa eta Indiako azido eraso biktimak.

"IN DIALOGUE" DOKUMENTALA IPAR IRLANDAKO GATAZKARI BURUZKOA DA

Goraintziak, Xabierren partetik

Aspaldi da kalean ikusten ez zaiola, baina ez ditu herrikideak ahaztu nahi. Aiurri astekariaren bitartez goraintziak eman nahi dizkie andoaindarrei. San Juan bataiatzailea egoitzan bizi da, eta gustura jasoko litzuzke herritarren bisitak

Xabier Lasa ANDOAIN

Herrian asko dira, heldu zein gazte, Xabier Mujika herrikidea non arraio dabilen galdezka dabilzanak. Denbora pasa baita bere presentzia kalean gora eta behera sumatu gabe. Edonoren aldartea pozteko gaitasuna zuen gizon alaia, Andoaingo goitik behera zeharkatzen duena, eta parean tokatzen zen mundu guztiari diosala egiten diona. Txilibitua joz, irratia eskuetan eta ahoan irribarre zabala. Horrela gogoratzen dute andoaindarrek, horixe baitzen bere eguneroko jarduna.

Beti bezain alaitu bizi da gizona Andoaingo Ama Kandida

etorbidean dagoen San Juan Bataiatzailearen zahar egoitzan. Hori bai, kalean egunero ibiltzeko erretiratu samar dago. Ez dauka herrian barrena ibiltzeko lehen zeukan joera hori. Nolanahi ere, eusten dio bizitzeko eta sentitzeko betidanik erakutsi izan duen umoreari eta baikortasunari.

Bere-bereak diren zaletasunekin gozatuz igarotzen ditu eguneko hainbat ordu. Alde horretatik, lehen bezainbat edo gehiago jarraitzen ditu eskupilotako partidak, Realari lotutako albisteak, aizkolarien arteko lehiak, bertso saioak..., telebista nahiz irratia bidez.


Bisitaldian joateko gonbitea luzatu nahi die herrikideei

Aiurriri adierazi dionez, goraintziak luzatu nahi dizkie Andoainen dauzkan lagun guztiei, berearekin gogoratzen direlako. Eta aldi berean, lagun horiek bixitan hartzeko prestutasuna agertu du, zahar egoitzako ordutegiaren baitan.

**XABIERREK
AMA KANDIDAKO SAN
JUAN BATAIATZAILEA
ZAHAR EGOITZAN
EMATEN DITU EGUNAK**



Xabier Mujika, San Juan Bataiatzailea zaharren egoitzan. AIURRI



Andoain bizi
2019-2020

Egun itzazu oroketel herrian

S2 SALKIN
Herriko Zerbitzuak

URKI
Herriko Zerbitzuak

Herriko Zerbitzuak

Abendak 1. laruntza

12:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 2. astelehena

SALKINEN EUGERRIETAKO KANPAINA.

• 12:00-13:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 13. ostirala

21:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 14. laruntza

EUGERRIEN ATARIKO FESTA

11:30-13:30 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 15. laruntza

11:30 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 20. ostirala

21:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 21. laruntza

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 22. ast.

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 24. asteartea

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 26. - 30. IKUSZIKUEN JAIALDIA

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 28. - 30. IKUSZIKUEN JAIALDIA

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 29. laruntza

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 27. - ast. 28.

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 27. - ast. 28.

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 31. asteartea

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 31. asteartea

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 31. asteartea

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 4. laruntza

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 5. ostirala

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

18:00 Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.

Abendak 31. asteartea

Orain. Tasmara. Herriko Zerbitzuak. Herriko Zerbitzuak.